



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2024ko laugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren osagaiak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak	13
Eranskina – Indizeak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familiek ia baikorrak izaten amaitu dute 2024. urtea
- EB-27ko familiak ezkorragoak dira
- oro har, konfiantza berreskuratzea da nagusi




1 EAEko familiek ia baikorrak izaten amaitu dute 2024. urtea

Laugarren lauhilekoak EAEko familien konfiantza-indizearen egonkortasuna finkatu du urte osoko ibilbidearen barruan, baina profilak hobera egin du apur bat (+2 puntu) eta urteko erregistrorik onena lortu da (-5, -3, -4 eta -2, lehenengo hiruhilekotik laugarrenera). Hala, urteko balantzea neutraltasunera iristen da ia (-4), EAEko familien konfiantzaren hobekuntza berretsiz, azken bi urtekoarekin alderatuta (-11 eta -9, 2022 eta 2023an). Horrela, 2025ari begira, baikorrak dira ia.

Konfiantza berreskuratzen lagundu duten faktoreak bi dira: i) agertoki inflazionistak hobera egin izana, % 2ko helburu-baliora hurbilduz; ondorioz, EBZ interes-tasak murrizten ari da etengabe eta ii) enpleguaren dinamismoa.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE




2 | EB-27ko familiak ezkorragoak dira

EB-27ko familiekin alderatuta, emaitza hobea da EAEko familientzat, bai laugarren lauhilekoan (-2 eta -8), bai urteko balantzean (-4 eta -12). Bi eremuetan, urteko profilak adierazten du konfiantza berreskuratzen ari direla: hiruhilekoko profilak (lehenengotik laugarrenera) eta urte artekoak (2023arekin alderatuta) EAEko eta Europako familiak baikortasunerantz doazela erakusten dute.

Hazkunde ekonomikoaren gaineko aurreikuspenek¹ baldintzatuko lituzkete emaitza horiek, eta Europako ekonomiaren dinamismoa txikiagoa da (+% 0,9), batez ere Alemaniaren atzeraldiak eraginda (-% 0,1). Aldiz, Espainiak hazkundera izango luke (+% 3,0) eta EAE tarteko posizioan egongo litzateke (+% 1,9, Eusko Jaurlaritzaren arabera).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatuak eta EB-27¹




1. European Economic Forecast, Autumn 2024 (Europako Batzordea). 2024ko azaroaren 15ean argitaratua.
2. EB-27ko 2024ko laugarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Urria-azaroa batezbestekoa. Ez dago eskuragarri Espainiarentzat.

3 | oro har, konfiantza berreskuratzea da nagusi

EAErentzako erreferenteak diren herrialdeek konfiantza-indizea hobetzeko profila partekatzen dute eta Danimarkako familiak dira daturik onena erregistratu dutenak (-4 laugarren hiruhilekoan); ondoren, Alemaniakoak (-7), Herbehereetakoak (-8) eta Frantziakoak (-9) daude, baina bat bera ere ez da iritsi EAEko familien emaitzara (-2), baikortasunera gehien hurbiltzen direnak baitira.

Urteko balantzeak (2024) ez du konfiantza-ranking hori aldatzen, eta Danimarkako familien emaitza da adierazgarriena (-4). Indize hori bat dator EAEko familien indizearekin (-4) eta atzetik daude Alemaniakoak (-10), Herbehereetakoak (-10) eta Frantziakoak (-13). Ereku guztietan hobetu dira 2023ko emaitzak, baina 2024ko batez besteko konfiantza-indizea laugarren hiruhilekoko baino txarragoa da. Horrek agerian uzten du ekitaldian zehar izandako hobekuntza.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak¹



1. 2024ko laugarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Urria-azaroa batezbestekoa

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGAIK

- EAEko familiek konfiantza hobetu dute ekonomia orokorrari dagokionez
- (oso) baikorrak dira langabeziaren bilakaerarekiko
- familiako ekonomiaren gaineko ezkortasun “erlatiboa” dute
- aurreztearekin lotutako igurikimenak positiboak dira (argi eta garbi)
- 2024: familien konfiantzaren lau osagaiak hobera egin dute


4 | EAEko familiek konfiantza hobetu dute ekonomia orokorrari dagokionez

Laugarren hiruhilekoan, ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak apur bat ezkorrak dira (-13, +2 puntu) sei hiruhilekoz jarraian hobekuntzak erregistratu arren; hala ere, 2023ko hirugarren hiruhilekoan erregistratutako ezkortasunetik urundu dira (-25). Urteko batez besteko balioak (-15) susperraldia berresten du (-23 eta -21, 2022an eta 2023an), baina ez da 2019ko “ezkortasun txikiagoko” mailara (-6) edo 2017ko (+6) eta 2018ko (+3) “baikortasunera” iristen.

Erregistratutako hobekuntza hori egoera ekonomikoak hobera egingo duela uste duten familien gorakadaren ondorio da (% 15,7, +1,7 ep), egoera okerragoa izango duela uste duten familien aldean (% 35,3, -1,6 ep). Aldaketarik espero ez duten familien taldearekin osatzen da hori (% 49,0, -0,1 ep).

Ibilbide hori bat dator EAEn hazkunde ekonomikoaren datuekin: laugarren hiruhilekoaren faltan (+% 2,1, +% 1,8 eta +% 1,8 urte arteko tasan, lehen hiruhilekotik hirugarrenera), Euskadiko ekonomia urte osoan % 1,9 inguru haziko dela berretsi daiteke.

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE




5 | (oso) baikorrak dira langabeziaren bilakaerarekiko

EAEko familiek langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimen positiboak indartu dituzte (+5 puntu) eta 2024ko hiruhilekoko daturik onena erregistratu dute (5). 2021eko hirugarren hiruhilekoko eta 2022ko bigarren hiruhilekoko balioek soilik gainditu dute datu hori. Hortaz, urteko balantzea positiboa da (+2) eta pandemia aurreko maila ere hobetu da (2019an -4).

Zehazki, 2024 ixtean, EAEko familien heren batek uste du langabezia jaitsi egingo dela (% 31,4; +5,0 ep) eta erdiak uste du ez dela aldatuko (% 50,1; -0,2 ep). Hamar familiatik bik baino gutxiagok uste du langabezia igo egingo dela (% 18,5; -4,8 ep).


Igurikimen horiek bat datoz lan-merkatuko adierazleen bilakaerarekin (urria-azaroa batezbestekoa): afiliazioak milioi bat kotizatzaileen langa gainditu du (1.021.829) eta igotzen jarraitzen du (+% 1,1 urte arteko tasan). Aldiz, langabeziak behera egin du (-% 0,3) 108.196 pertsonara heldu arte.



6 | familiako ekonomiaren gaineko ezkortasun “erlatiboa” dute

Familiaren ekonomiaren gaineko igurikimenek profil nahiko egonkorra erakusten dute ekitaldian zehar (-5, -4, -6 eta -4, lehenengo hiruhilekotik laugarrenera). Urtea hobekuntza txiki batekin (+2 puntu) eta neutraltasunetik gertu dagoen -ez da iristen (-5)- balantze orokorrarekin itxi dute. Hortaz, EAEko familien ezkortasun-maila murriztu egin da 2022ko eta 2023ko balioekin alderatuta (-17 eta -12), eta 2019ko mailara itzuli dira (2). Hala, familiako ekonomiaren gaineko konfiantza pixkanaka berreskuratzen ari direla agerian geratu da.

Emitza horien oinarrian dago familia gehienek uste dutela beren egoera ekonomikoak hobera egingo duela (% 9,6; +0,4 ep) edo aldaketarik gabe mantenduko dela (% 73,8; +1,8 ep). Aldiz, okerrera egingo duela uste duten familien taldea txikitu egin da (% 16,6; -2,2 ep). Hortaz, EAEko familiek azken bost urteetako igurikimenik onenak dituzte 2025erako familiaren ekonomiari buruz.




7 | aurreztearekin lotutako igurikimenak positiboak dira (argi eta garbi)

EAEko familiek aurrezteko gaitasunaren gaineko igurikimenak finkatu dituzte, aurreko hiruhilekoko balio berberarekin eta maila positiboari eutsiz hirugarren hiruhilekoz jarraian (+4, +3 eta +3, bigarren hiruhilekotik laugarrenera). Hala, 2024ko batez besteko balioa baikortasunean kokatzen da (+2), 2019an bezala (+2), eta azken bi urtetako balioak hobetu ditu (2022an eta 2023an -2).

Indize hori bi posizio polarizatuk osatzen dute: EAEko familien erdiak uste du datorren hamabi hilabeteetan ezin izango duela aurreztu (% 50,7) eta beste erdiak aurreztea espero du (% 49,3). Eraitza neutraltasunetik hurbil dagoen indizea da.

Hala ere, igurikimen horiek ez datoz bat azken urtean aurreztu dutela adierazi duten familiekin; izan ere, gehienek aurreztu ahal izan dute (% 73,8).



8 | 2024: familien konfiantzaren lau osagaiek hobera egin dute

2024ko emaitzek EAEko familien konfiantzaren hobekuntza-profila berresten dute; izan ere, igurikimenak 2023an baino positiboagoak edo ez hain negatiboak dira konfiantzaren adierazle orokorra eratzen duten lau osagaietan. Izatez, laugarren hiruhilekoko emaitza (-2) urteko daturik onena da (-5, -3 eta -4 lehenengo hiruhilekotik hirugarrenera), baita azken bi ekitaldietakoa ere (2022an eta 2023an -11 eta -9). Hala, pandemia aurreko konfiantza-mailara itzuli da (-2, 2019an).

Lau indize partzialen xehetasunak hau erakusten du (urteko datua):

- Familien igurikimenak positiboak dira (argi eta garbi) langabeziaren bilakaerari eta aurrezteko gaitasunari buruz (+2, bi kasuetan) aurreko urteko emaitzekin alderatuta. Iaz, EAEko familien artean ezkortasun jakin bat igartzen baitzen (-4 eta -2, hurrenez hurren).
- Konfiantzaren beste bi osagaietan -ekonomia orokorra eta familiakoa-, balio negatiboak mantendu arren (-15 eta -5), nabarmen murriztu da ezkortasun-maila 2023ko emaitzekin alderatuta (-21 eta -12, hurrenez hurren).

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2022	2023	2024	IH-24	IIH-24	IIIH-24	IVH-24	Aldea	
Familien konfiantza	-11	-9	-4	-5	-3	-4	-2	2	▶
Ekonomia orokorra	-23	-21	-15	-18	-16	-15	-13	2	▶
Etxeko ekonomia	-17	-12	-5	-5	-4	-6	-4	2	▶
Langabeziaren bilakaera	-1	-4	2	2	2	0	5	5	▲
Aurrezteko gaitasuna	-2	-2	2	0	4	3	3	0	▶

↔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA-ERABAKIAK

- EAEko familiek prezioak igotzea aurreikusten dute
- erosteko unearen (oraingo) balorazioa ez da hain negatiboa
- eta erosketa handiak egiteko igurikimenak positiboak izaten hasi dira
- etxebizitza eta autoa erosteko asmoa, egonkor
- 2024: kontsumo handiko igurikimenak berreskuratu dira




9 | EAEko familiek prezioak igotzea aurreikusten dute

EAEko familiek prezioen bilakaeraren gainean dituzten igurikimenak negatiboak dira (-1) eta horrek orain arte erregistratutako hobekuntza-sekuentzia apurtu du (1, 5 eta 9 puntu, lehen hiruhilekotik hirugarrenera). Nabarmen okerrera egin duen arren (-10 puntu), urteko batezbestekoa positiboa da egiaz (+4); hortaz, azken hiru hurreko bako bako agertoki hobea iragarri daiteke (-41, -48, -6, 2021ean, 2022an eta 2023an).

Lortutako emaitzek azaltzen dute azken hiruhilekoko atzeraldi txikia: prezioak azken urtean baino azkarrago igoko direla uste duten familien taldea handitu egin da (% 28,3; +5,8 ep) eta txikitu egin dira prezioen gorakadaren erritmo antzekoa (% 43,9; -2,5 ep) edo geldoagoa (% 27,8; -3,3 ep) aurreikusten duten taldeak. Hala ere, eskuragarri dauden datuek (azaroa) inflazioaren hobekuntza-profila berresten dute, moteltzen ari baita % 2ko helburura arte (+% 2,9 eta +% 2,4, urte arteko tasan EAErentzat eta Estatuarentzat).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

10 | erosteko unearen (oraingo) balorazioa ez da hain negatiboa

Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?


Erosketa handiak egiteko unearen balorazioak hobera egin du aurreko hiruhilekoko emaitzarekin alderatuta (+11 puntu), eta azken hamalau hiruhilekoetako zifrarik onena erregistratu da (2021eko bigarren hiruhilekotik), nahiz eta oraindik apur bat negatiboa izan (-12). Hortaz, urteko balantzea (-19) 2021ean erregistratutako maila antzekoetara (-12) itzuli da, 2022ko (-34) eta 2023ko (-27) erregistro negatiboen ostean.

Oro har, EAEko familiek erosteko unearen gaineko balorazio neutroa egin dute (% 70,0; +9,4 ep) une egokia dela uste duten familien taldearekin (% 8,8; +0,4 ep) eta une desegokia dela uste duten familien taldearen beherakadarekin batera (% 21,2; -9,8 ep).

Erosteke unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketa horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago.

Erosteke unearen balioztapena¹

(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetako dagokienez


11 | eta erosketak handiak egiteko igurikimenak positiboak izaten hasi dira

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Laugarren hiruhilekoan, erosketak handien gaineko igurikimenak positiboak izan dira (+1) eta ekitaldiko ibilbidea finkatu da horrela (-6, 0 eta 0, lehenengo hiruhilekotik hirugarrenera). Halaber, 2024ko balantzeak baikotasunera jotzen du (-1 urteko batezbestekoa). Hala, EAEko familiak kontsumoaren gaineko konfiantza berreskuratzen ari dira (-11 eta -7, 2022an eta 2023an).

Zehazki, hamar familiatik bik aurreikusten dute beren erosketak azken urtean baino handiagoak izango direla (% 20,9; -2,1 ep) eta hamarretik seik beren kontsumo-maila mantenduko dutela (% 61,2; +5,0 ep). Erosketak murriztuko dituzten familien multzoa txikiagoa da (% 17,9; -2,9 ep). Igurikimen horiek bat datoz familien kontsumoaren bilakaerarekin (HKE), handitzen jarraitu baitzuen hirugarren hiruhilekoan (+% 0,3 eta +% 1,8, hiruhileko arteko eta urte arteko tasan).


— Zure ustetan, nolakoak izango dira etxeko erosketak datozen 12 hilabeteetan¹ —
(pertsoneen %a)




¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

12 | etxebizitza eta autoa erosteko asmoa, egonkor

EAEko familien % 0,6k uste du datozen hamabi hilabeteetan (ia ziur) etxe bat erosiko duela. Urte osoko emaitzaren antzekoa da (urteko batezbestekoa % 0,5). Etxebizitzen¹ salerosketari buruz eskuragarri dauden datuek (urtarrila-iraila) erakusten dute EAEn higiezinaren 16.939 transakzio egin direla, 2023ko (16.168; +% 4,8) zein 2019ko (16.913, +% 0,2) kopuruak hobetuz.



Ez da aldaketarik izan autoa erosteko asmoan: familien % 5,8k adierazi du ibilgailu bat erosiko duela (ia ziur) datozen hamabi hilabeteetan -urteko batezbestekoa % 5,5-. Balantzeak² (urtarrila-azaroa) berresten du jarduerak izan duen bultzada: 22.879 unitate berri saldu dira (+% 3,7, urte artekoa), baina urrun dago oraindik 2019ko erregistroetatik (36.408, -% 37,2).



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

13 | 2024: kontsumo handiko igurikimenak berreskuratu dira

Laugarren hiruhilekoko emaitzek berretsi dute kontsumoarekin lotutako igurikimenak berreskuratu egin direla, eta urteko emaitzak nabarmen hobetu ditu 2023ko erregistroak:

- Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak positiboak dira (4) eta 2023koak baino hobeak argi eta garbi (-6), nahiz eta laugarren hiruhilekoan atzeraldi txiki bat izan (-1), ekitaldiko hobekuntza-profilarekin apurtuz (1, 5 eta 9, lehen hiruhilekotik hirugarrenera). Hortaz, urteko balantzea positiboa da: familiek prezioen hazkunde txikiagoa iragartzen dute, inflazioaren beherakadarekin bat etorritik -KPI orokorraren hazkundera % 2 ingurura gerturaten ari da.
- Erosteke unearen balorazioa da laugarren hiruhilekoan gehien hobetu den itema (+11 puntu), baina balio negatiboetan jarraitzen du (-12). Hala ere, urteko batez besteko balioa (-19) urrun dago azken biurteko erregistrorik txarrenetatik (-34 eta -27, 2022an eta 2023an).
- Erosteke igurikimeneen kasuan, urtea positiboan itxi da (+1) eta ekitaldiko hobekuntza-profila berretsi da (-6, 0 eta 0, lehen hiruhilekotik hirugarrenera). Hala, urteko balantzea ia positiboa da (-1), eta azken biurteko erregistroak hobetu dira (-11 eta -7, 2022an eta 2023an).
- Etxebizitza erosteke asmoa da 2023rekin alderatuta hobera egin ez duen item bakarra: familien % 0,5ek soilik uste du etxebizitza bat erosiko duela (2023an % 0,6) eta oso urrun dago pandemia aurreko mailetatik (2019an % 2,1). Bestalde, autoa erosteke igurikimeneke hobera egin dute (% 5,5, 2023an % 4,3) eta jarduerak bultzada jakin bat izan duela ikus daiteke.

Kontsumoari buruzko igurikimeneen beste indize batzuk

	2022	2023	2024	I H-24	II H-24	III H-24	IV H-24	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-48	-6	4	1	5	9	-1	-10	▼
Erosteke unearen balorazioa	-34	-27	-19	-23	-20	-23	-12	11	▲
Erosketak egiteko igurikimenak	-11	-7	-1	-6	0	0	1	1	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea

euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I | laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2022	2023	2024	I H-24	II H-24	III H-24	IV H-24	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-11	-9	-4	-5	-3	-4	-2	▶
• Estatua*	-26	-19	-15	-17	-14	-14	d.e	
• EB*	-22	-17	-12	-14	-13	-12	-8	▲
○ Frantzia*	-18	-17	-13	-13	-15	-13	-9	▲
○ Alemania*	-20	-15	-10	-15	-10	-10	-7	▲
○ Danimarka*	-14	-8	-4	-4	-4	-4	-4	▶
○ Herbehereak*	-25	-18	-10	-12	-12	-10	-8	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-23	-21	-15	-18	-16	-15	-13	▶
• Etxeko ekonomia	-17	-12	-5	-5	-4	-6	-4	▶
• Langabezia	-1	-4	2	2	2	0	5	▲
• Aurrezkia	-2	-2	2	0	4	3	3	▶
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-48	-6	4	1	5	9	-1	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-34	-27	-19	-23	-20	-23	-12	▲
• Erosketak egiteko igurikimena	-11	-7	-1	-6	0	0	1	▶
Erosketa handiak. EAE**								
• Etxebizitza	1,2	0,6	0,5	0,4	0,7	0,2	0,6	▶
• Autoa	6,5	4,3	5,5	5,5	4,8	5,8	5,8	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* IV. hiruhilekoko datuak urria-azaroa batez bestekoari dagozkio. Ez dago eskuragarri Espainiarentzat, beraz, 2024ko urteko datuak lehen hiru hiruhilekoak soilik hartzen ditu

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

	<u>2022</u>	<u>2023</u>	<u>2024</u>	<u>I H-24</u>	<u>II H-24</u>	<u>III H-24</u>	<u>IV H-24</u>	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-11	-9	-4	-5	-3	-4	-2	▶
Adin-taldeak								
• 25 eta 39 urte bitartean	-4	-10	-9	-9	-7	-9	-11	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-14	-9	-3	-5	-3	-2	-3	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-11	-6	0	-3	0	2	1	▶
• 65 eta 74 urte bitartean	-14	-12	-2	-4	-1	-9	6	▲
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	-10	-7	-4	-5	-3	-3	-4	▶
• Langabea	-19	-23	-17	-24	-13	-16	-13	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-12	-9	0	-1	-1	-5	5	▲
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-22	-20	-16	-17	-18	-13	-14	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-11	-9	-5	-4	-3	-7	-3	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	-1	-1	3	1	5	2	4	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	IV H – 23	I H – 24	II H – 24	III H – 24	IV H – 24 _b	(azkena)
BPG	2,3	2,2	1,8	1,8	--	III. hiruhilekoa
Familien kontsumoa	1,8	2,0	1,9	1,8	--	III. hiruhilekoa
Afiliazioa	1,8	-0,3	1,0	-1,2	1,6	urria-azaroa
Erregistratutako langabezia	1,2	2,4	-3,3	1,6	-0,9	urria-azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,1	1,4	1,8	1,7	--	III. hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	-16,4	28,9	-8,4	32,6	--	III. hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	29,4	-10,6	4,9	-10,4	29,0	urria-azaroa

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.


Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2024ko azaroaren 11tik 22ra (2024ko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm